

Kaiixo

urretxu!

2. orrian

GIZARTE EKIMENERAKO LAGUNTZAK

Egoera zailenean dauden herritarrek Udalaren lehentasuna izaten jarraitzen dute

3. orrian

TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS, QUE EL PESO NO RECAIGA EN LA CIUDADANÍA

El Ayuntamiento prioriza a los colectivos locales

6. orrian

URRETXUBIZIZ, AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

Zazpi sektore desberdinekin bilerak egingo ditu Udalak

6. orrian

Gorka Hermosa, soinua lagun, munduan barna

Soinujole eta musikari

urretxuarrarekin elkarrizketa

Kaiixo urretxu!

Urretxuko Udal Aldizkaria

Ayudas de acción social

Las ayudas a los más desfavorecidos en este momento crítico y delicado siguen siendo una de las prioridades

Al margen de las subvenciones a las asociaciones que recogen las tablas adjuntas, el Ayuntamiento de Urretxu también ofrece ayudas, siempre según unos baremos y unas pautas establecidas, en el pago de tasas y precios públicos –obras, agua, recogida de basuras– así como a aquell@s ciudadan@s que necesiten tratamientos psicológicos, a adolescentes en situación de peligro o a aquellos que deben realizar largos viajes para visitar a sus familiares presos.

ELKARTEE DIRU LAGUNTZAK

Elkartea	Zenbatekoa
----------	------------

ATECE	632€
AGABE	750€
IZAN	1.200€
URGADIEL	1.200€
AGIFES	540€
NAGUSILAN	585€
TXOLARTE	363€
ATZEGI	862€
ERALDATZEN	1020€
GURUTZE GORRIA	300€
ACASGI	805€
ASPANOVAS	690€
APPALUR	1000€
MAIRI	900€
DONANTES DE SANGRE	540€
SOS BEBES ROBADOS	375€
ORTZADAR	500€
GAUTENA	500€
KATXALIN	375€
ALCER	862€

GUZTIRA 14.000€

NAZIOARTEKO DIRU LAGUNTZAK

Elkartea	Zenbatekoa
----------	------------

Denok Osasunaren alde (Bolivia)	5.653€
Ilargi Beltza (Nicaragua)	5.711€
M.A. Barrenetxea (Tanzania)	5.186€
J.M. De la Piedad (Nicaragua)	3.160€
C. Ayuda al Desarrollo (Guatemala)	5.070€
Garabide (Colombia, México, Bolivia)	5.070€
Bikarte (Errusia)	618€
Hare Haizea (Sahara)	4.834€

GUZTIRA 37.565€

Kaixo urretxu!

2012 AZAROA / 115. ALEA

Ale honetako laguntzaileak: Iñaki Arriaran, Oihane Zabaleta, Jon Altolagirre, Gorka Azkarate eta Gorka Hermosa

Argazkiak: Gorka Hermosaren artxibo pertsonala, Luis Ángel Téllez eta udal artxiboa.

Lege Gordailua: SS/678/93

Koordinatzailea: Jon Ormazabal

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

KAIXOK ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net.

Egungo egoeraren zama herritarren bizkarrean eror ez dadin

Udalak hurrengo urterako arau fiskalak onartu ditu. Ekitatea, progresibitatea eta birbanaketaren bila, orokorrean KPlaren arabera %3ko igoera izango dute.

Gaianean daukagun egoera larriak gaituaren berrazterketa sakon bat eskatzen duen arren, Urretxuko udal Gobernuak oso argi dauka Udala ez dela urtearen bukaeran etekinak ateratzeko dagoen enpresa bat, baizik eta herritarrei (eta hauen artean lehentasunez, gutxien daukatenei) zerbitzuak eskaintzen busti behar duen erakunde publiko bat. Axioma hori oso gogoan hartuta, hiru dira azaroko udalbatzan onartu ziren 2013.urterako tasetan bilatu diren printzipio nagusiak.

- *Ekitatea edo justizia
- *Progresibitatea
- *Birbanaketa


Gauzak horrela, hurrengo urterako zerga eta tasei orokorrean KPlaren arabera %3ko igoera bat ezarriko zaie, nahiz eta aurtengo Hego Euskal Herriko KPla dagoeneko %3,6an egon eta %3,8ra ere helduko dela espero den. Dena dela, Tasa eta Prezio publiko bakoitzean, kostuen azterketa bat nahitaezkoa izan da, irizpide nagusi bezala, oinarritzko zerbitzuen gutxieneko erabilera ahalik eta merkeen bermatzea erabili da.

Gainera, progresibitatearen ildotik, gutxien dutenen zerbitzuak ordaintzeko gehien dutenen zergak erabiliko dira eta gutxieneko soldata interprofesionalera iritsi ez edo muga horretatik oso gertu ibiltzen diren herritarrentzat hobarien edo zerga salbuespenen eskaintza egi-tan jarraituko da.

TASEAN BERRIKUNTZAK/ NOVEDADES EN LAS TASAS



TASEAN BERRIKUNTZAK/ NOVEDADES EN LAS TASAS



Ondasun Higiezin Zerga (IBI)

Alor honetan, irizpide orokorra mantentzen da, hau da, KPIaren arabera %3aren igoera izango du tasak, nahiz eta ohikoa ez diren etxeei %75eko errekaratu bat ezarriko zaien.

Hala ere, kasu hauetan ere badaude zenbait exentzio:

-Gutxienez hiru hilabeteetan zehar kontsumoak dituzten etxeak.

-Salmenta edo alokairu prozesuan dauden etxebizitzak

-Dependentzia egoera batengatik etxebizitza utzi duten adineko jendearen etxebizitzak.

-Herentzian jasotako etxebizitzak, lehen bost urteetan.

-Jarduera ekonomikoren bat duten etxebizitzak.

-Baserri hutsak edo erortzeak dauden etxebizitzak.

Aurreikuspenen arabera, aldaketa hauekin 4805 euro gehiago biltzea espero du du Udalak, baina batez ere, herrian dauden etxebizitza hutsen errolda egitea lortzen da, etxebizitza politika jasangarri bat eraman ahal izateko.

Gaur egun Urretxun 2931 etxebizitza daude zentsatuta, horietatik 166 dira bertan inor erroldatu gabekoak eta horietako 47tan lehen aipatutako exentzioak aplikatuko lirateke, hau da, 119 etxebizitzetara aplikatuko litzateke errekaratu hori.

Beste alde batetik, Gipuzkoako Aldundiak irabazi asmorik gabeko erakundeek zergak ordaintzeko bidea zabaldu du. Etorriko diren zerrendetan, gurtza tokiak

ez diren eraikuntzen zerrenda etorriko da eta Udal bakoitzak dagokiena ordaintzeko aukera izango du. Urretxuko Udalak halaxe egingo du.

Impuesto sobre Actividades Económicas IAE

Hasta ahora, las empresas que facturaban dos millones de euros debían abonar un impuesto. Sin embargo, como una nueva norma foral de la Diputación permite bajar esa cifra hasta un millón, se establece ese nuevo límite.

Eso sí, las empresas o actividades económicas que quieran emprender nuevas actividades tendrán una bonificación del 50%. Además, el Ayuntamiento está trabajando en la forma de ayudar a aquellas empresas que se encuentran en una situación complicada. Es decir, se adquiere el compromiso de estudiar el caso que aquellas actividades que no presenten beneficios. Con este cambio, el Ayuntamiento espera ingresar 20.719,32 euros más

Eraikuntza, instalazio eta obren iguruko zerga (ICIO)

Alor honetan, orain arte etxe batean egin beharreko lanen inguruko aurrekontu bat aurkezten zenean, aurrekontu hori 180.000 eurotik beherakoa bazen %4,5eko zerga zuen eta hortik gorakoa bazen, berriz, %5ekoa. Orain, berriz, kasu guztietan %5eko zerga jarriko zaie lan guztiei, ematen ziren amarruekin amaituz.

Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica

En este apartado, no se aplicará ninguna subida en camiones, tractores y remolques, entendiéndose de que son vehículos destinados a una actividad económica.

No obstante, en coches y motos, se sigue con lo realizado en los últimos años, es decir, que paguen más aquellos vehículos destinados a un gran consumo.

IBILGAILUAREN ARABERAKO IGOERA



Txakurrak

Lehendabiziko aldiz txakurren inguruko tasa bat jarri da, zehazki hauek abandonatuta uzten dituzten jabeek ordaindu beharko dituztenak. Horrela, txakurra jasotzea 51 euro ordaindu beharko da, egonaldia 5 euro eguneko izango da eta sakrifizioa 51,21 euro.

Agua y basuras

En basuras, se aplicará una subida del 7%. De todos modos, habrá ciertas excepciones como el caso de despachos, gabinetes y peluquerías, así como el resto de establecimientos, donde se ha

dado una reducción. Antes, al trimestre se abonaban 59,5 euros y ahora serán solo 22.

En el caso de agua, tras una negociación con Aquagest, que proponía un incremento del 3%, la subida será del 2,2%

Kirolak

Alor honetan %6ko igoera bat eman da. Arrazoi nagusia, irailean eman zen BEZ-aren igoerarengatik bakarrik, kirol zerbitzuetan %3ko igoera bat eman dela eta ikastaroetan %18koa.

Honen aurrean, autofinantziazioa zenbaitekoa den aztertu ondoren, lau proposamen aurkeztu zitzaizkien gainerako alderdi politikoei eta abonatu eta erabiltzaileen arteko oreka bat bilatu asmoz, biei %6a igotzea erabaki zen.

Igerilekuan, langabetu eta ikasleek %25eko deskontua izango dute sarrean, orain arte abonatuak zuten bezala.



Urretxu Biziz, aurrekontu parte-hartzaileak

Prozesu berritzaile guztiek martxan jarzeko izaten dituzten zailtasunak gaindituz joan diren eran, Urretxuko zazpi sektore gauza izan dira 2012an zehar beraien jardunarentzat oinarritzkoa izango den egituratze proiektu bat proposatzeko. Horrek eskakizun handia ezartzen dio bai sektoreari, bai sektoreko partaideei eta baita udalari ere. Gainera, Urretxuko eta Zumarragako musika eragile zenbaitek ere jarduerari eta ekimen zehatzei lotutako prozesu parte hartzailea eraman dute aurrera azken hilabete eta erdian.

Lehen urrats horiek emanda, aurrekontuak egiteko unea ere iritsi da eta hauek parte hartzaileak izango badira, orain arte egindako lana bere metodologian presente eduki behar dute. Era berean, sortu diren elkarlan aukerak iraunkor

Otzeko eta urteetan iraungo duen harreman molde bat ezartzen hasteko balio behar izango dute.

Udal Gobernuak argi dauka aurrekontuek herritarren jabekuntzarako tresna izan behar dutela. Udal aurrekontua herriarrengan eta herritarrengan eragina duten neurriak eta hauek gauzatzeko bitartekoak jasotzen dituen plana dela kontuan izanda, ekimenak antolatzeke unea heldu da.

Horiek horrela, Udal Gobernuaren ustez, udalak sektoreei laguntzeko aurrekontuetan diru-partida zehatz bat edukiko duten lan-lerroak ezartzea baino ekarpen handiagoa egin dezake, eta sektoreek ere, jaso ditzaketen diru-laguntzetatik harago amestu eta pentsatu behar dute.



Aurrekontu parte hartzaileek sektore bakoitzak datorren urtean, eta baita epe luzeago batean ere, landu behar duten helburu nagusia zehaztu eta horretarako beharko dituen bitartekoak –udal aurrekontua tarteko– zirriborrazteko unea zabaltzen dute.

Horiek horrela, Udal Gobernuak prozesua garatzeko udal ordezkariak parte hartuko duten bi bilera planteatzen ditu. Lehenengoan, 2013ra –eta hurrengo urteetara– begirako sektorearen helburu nagusia finkatu eta ekintzen bidez zehaztea proposatzen da, bigarren batean ekintza horietarako ardurak, epeak eta bitartekoak zehaztu, aurrekontuetan isla izan dezaten.

Sektoreek egindako proposamena bigarren bileran zehaztuko da, eta Urretxuko Parte Hartze Estrategiaren Talde Eragilerak bidaliko da honek batasuna eta koherentzia eman diezaien proposamen guztiei, Udaleko Gobernu Batzordearen esku utziz. Azken honek aurrekontu egitasmoan txertatuko ditu, egitasmoan jar daitezkeenak Udal plenoari aurkezteko, honek onar ditzan.

Une honetan bizi dugun egoera ekonomikoak udal honi nahiko lituzkeenak baino muga handiagoak ezartzen dizkio. Dena dela, eta esanda bezala, Udalak laguntza osoa, eta eskura dituen bitarteko guztiak (lokalak, azpiegiturak, baliabide ekonomikoak) jarri nahi ditu sektoreen asmoak betetze aldera. Jakina da, gaia hemen planteatu den moduan, udalaren diru partidek garrantzi handia dutela, baina baita ere herri ekimenak eta dirutan kuantifika ezin daitezkeen egitasmo, ekimen eta ekintza jakinek.

Orotara zazpi sektore desberdin banatu dira:

- *Euskalgintza
- *Baserritarrak
- *Kultura
- *Berdintasuna
- *Ingurumena
- *Gaztedia

Gainera, auzoek dituzten ezaugarri bereziak direla eta, lanketa hau eraginkorra izango ez denaren ustetan, proposamen zehatz eta propioa egingo da bertako biztanleekin, auzo bakoitzaren ezaugarrietara moldatuko den metodologiarekin.

Abendua:

- 3, astelehena: Ingurumena.
- 4, asteartea: Talde eragilea.
- 10, astelehena: Kultura 1.
- 11, asteartea: Aparicio /Sta Barbara.
- 17, astelehena: Kultura 2.
- 19, asteazkena: Berdintasuna 1, Mundo Mejor eta San Martin
- 26, asteazkena: Berdintasuna 2.

Urtarrila:

- 7, astelehena: Gaztedia 1.
- 9, asteazkena: Euskalgintza.
- 14, astelehena: Gaztedia 2.
- 16, asteazkena: Euskalgintza 2.
- 17, osteguna: Talde eragilea.
- 21, astelehena: Pagoeta.
- 22, asteartea: Jendeaurreko aurkezpena

Bilera guztiak arratsaldeko zazpitan egingo dira Urretxuko Kultur Etxean. Gai hauetan interesa duen guztia **gonbidatuta dago** nahi duen sektoreko bileran parte hartzera.



Gorka Azkarate
Bertsolaria

«Teknika musikaren parte txiki bat besterik ez da»

Santa Ceciliaren aitzakian, Gorka Hermosarekin bere ibilbide oparoaz aritu gara. «Gazte gaztetatikan herri-tik kanpora» ibilitakoa da soinu-jolea baina laster herrian kontzertu bat ematekotan da.

Oinarrizko ikasketak Ikastolan eta Lizeoan egin zenituen; zer oroitzapen daukazu garai hartaz?

Oso oroitzapen polita daukat. Transizio garaian, ikastoletako irakasleek ilusio handia zutela gogoratzen dut eta nik uste ilusio hori guri ere transmititzea lortu zutela, heziketa on bat emanaz. Nire familia erdalduna zen eta ni bezalako umeen euskalduntzea oso ondo egin zela uste dut. Horretaz gain, nire oraingo lagunak onenak garai hartan egin nituen. Gauza on asko zor dizkiet, beraz, Ikastolari eta Lizeoari.

Bien bitartean, musika ikasketekin bateratzen zenituen oinarrizko ikas-



Gorka Hermosa
Musikaria

ketak. Noiz erabaki zenuen musika munduan sakontzea, ogibide bilakatzera heldu arte? ?

18 urterekin. Lizeoan ideia hori banerabilen buruan, baina 18 urte bete arte ez nuen garbi ikusi.

Txikitatik ezagutu zaitugu akordeoia jotzen: zergatik edo nola aukeratu zenuen bere momentuan

akordeoia eta ez beste edozein musika tresna?

Bost urte eman nituen solfeoa ikasten instrumenturik aukeratu gabe. Egia esan, musikak ez ninduen batere erakartzen. Instrumentu bat aukeratzeko, nik arpa ikasi nahi nuen (Marx anaien filmeen eraginagatik edo...), baina herrian ez zegoen arpa ikasteko aukerarik. Nire lagun Jon Lekuonak akordeoia jotzen zuen eta azkenean berak animatu ninduen. Gogo handiegirik gabe hasi nintzen egia esan.

Musika munduan goi mailako ikasketak egina zara, baina sarritan esan izan da musikari batek sekula ez diola ikasteari uzten...

Noski! Hori da musikak daukan gauza politenetako bat, beti ikasten ari zaren sentipena izatea.

Nazioarte mailan punta-puntan dabilen musikaria zara. Noizbait izan al duzu teknikoki zure sabaia jo izanaren sentipena?

Teknika, musikaren parte txiki bat besterik ez da. Gaztea nintzenean ordu kopuru izugarria sartu nuen ikasten eta teknikoki, nik uste, oinarri oso on bat eman zidatela nire irakasleek. Ez dut sekula sentitu teknikari dagokionez herren nabilenik, baina ez nuke esango sabaia jo dudarik.

Akordeoiaren errepertorio klasiko-tik aldendu eta bestelako bideak jorratzerako orduan aitzindaria izan zara sarritan...

Beti gustatu izan zait akordeoiaz espero ez den musika egitea eta proiektu kurio-soak sortzea. Maila handiko jende asko dago gauza oso onak eginaz, eta beraz, toki garrantzitsuetan kontzertuak eman ahal izateko, orijinaltasun puntu bat ezinbestekoa da.

Hitz gutxitan: zer eman dizute akordeoiak eta musikak?

Buff! Nire bizia musika eta akordeoiaren inguruan eraiki dut. Beraz nire oraingo bizia zor diet akordeoiari eta musikari! Gehien eskertzen dudana, batez ere, oso jende interesgarria ezagutu izana eta nazio ugari bisitatzeko aukera izan dira. Oso lagun onak egin ditut musikari esker. Hori da agian eman didaten gauzarik politena.

Handik hona ibili zara, baina gaur egun Santanderren bizi zara.

Bai. Oso gustora sentitzen naiz Cantabriari; itsasoaren ondoan eta berdez inguratutako dagoen herritxo batean bizi





naiz (Mogro, Santanderretik 12 km-tara). Beste toki batzuetan bizi izan naizenean berdetasun hori faltan botatzen nuen eta Mogrok Urretxu ekartzen dit beti gogora. Goizero etxeko leihotik itsasoa ikusteko aukera izatea, gainera, zoragarria iruditzen zait.

Zeintzuk izan dira zure musika ibilbideko unerik garrantzitsuenak?

Interprete bezela, agian, orkestra solista izan naizen hamabi kontzertuak izan dira, batez ere 1998an RTVEko Orkestra Sinfonikoarekin TVE eta RNErentzako eman nuen kontzertua. Konpositore bezela Grayson Masefield Zelanda Berritarrrak nire «Fragilissimo» obra joaz «Trophée Mondiale» konkurtsoa irabazi zuenean. Horri esker nazioartean jende pilo batek ezagutu ninduen eta geroztik asko dira nire obrak jotzen dituzten puntako akordeoilariak. Gogoan dut, baita ere, orain dela hilabete bat Washingto-

nen nire akordeoi eta orkestrarako «Picassoren Gernika» obra estreinatu dutenean. Irakasle bezela, nire ikasleek lehiaketa garrantzitsuren bat irabazi izan dutenean ere oso harro sentitu izan naiz edo beraiekin TVErentzako programa bat grabatu dugun bakoitzean (nire ikasle Sofia Rosek RNE Clásica-rentzat kontzertu bat eman zuenean, adibidez). Eta gero, noski, diska edo liburu bat argitaratu dudana bakoitzean, denbora askoko lanaren ondorioa izan baitira.

Kontatu pixka bat zein diren gaur egun esku artean darabilzkizun proiektuak

Interprete bezela «Flamenko Etxea» boskotea, «Fantanguendo» duoa, «Tangosophy» trioa, «Malandro» trioa eta «Harmonium» duoa dauzkat martxan, bakoitzarekin musika estilo desberdin bat jorratuz (flamenkoa, tangoa, jazz edo musika garaikidea). Orain dela aste-

bete Bilboko Banda Munizipaleko bakar-laria izan naiz Euskalduna jauregian. Azaroan nire azken liburua aurkeztuko dut eta abenduan Madril, Bartzelona, Bilbo, Basauri, Santander eta Torrelavegan emango ditut kontzertuak. Horrez gain Mosku, Pekin, Lisboa eta Veneziako kontserbatorioetako irakasleentzat obrak idazteko enkargua dut. Ilusio handia egiten dit horrelako akordeoilari garrantzitsuentzako obrak idaztea: sekulako luxua da nire musikaz interesaturik daudela sentitzea.

Ez zara oso urruti bizi, baina herria faltan botako duzu... Noizbait itzultzeko asmorik?

Izugarri botatzen dut falta herria. Lehen askoz gehiago etortzen nintzen, baina orain ez dut nahi adina etortzeko denborarik. Itzuli? Sekula ezin daiteke jakin bi-

zitzak nora eramango zaituen...

Urretxun kontzertu bat emateko zara laster...

Datorren otsaila inguruan Urretxun aurkeztuko dut nire azken diskoa "Flamenco Etxea". José Luis Montón kitarrista flamenkoa, María Berasarte abeslari donostiarra, Odei Lizaso perkusio jole hernaniarra eta Selene Muñoz bailaora daniarrarekin boskotean. Oso ikuskizun berezia izango da. Ilusio handia egingo lidake Labeaga aretoa jendez beterik ikusteak. Oso polita izan da herrira jotzera etorri naizen aldi bakoitza. Herrian oso kontzertu gutxi eman ditudan sentazioa dut. Herriko kultur ekintzetatik gertuago egotea gustatuko litzaidake eta jada Urretxuko udalarekin hitzegiten hasi gara kolaborazio horri forma emateko.



SANTA LUTZI FERIA

Abenduak

13

Diciembre

